



LESBIANAK LEGEZ ETA BIDEZ

Sasi guztiek gaineratik bidea egiten jarraitzeko proposamenak

Elena Olaortua
Josune Ortiz

LGTB esparrua ondo baino hobeto ezagutzen dugu, eta gure eskarmentua baliatuta lau emakume lesbiana bildu eta Emakunderen beka bati esker, ikerketa-egitasmoa burutu genuen 2014an.

EAEn bizi diren lesbianek pairatzen duten diskriminazio soziala eta mota guztietako baliabide sozialak ezagutzeko eta erabiltzeko, diskriminazioek eragindako ondorioak aztertu genituen, eta baita lesbianentzat arriskutsuak diren lekuak eta egoerak identifikatu ere. Alorretako eta zeharkako ikuspegia baliatu dugu, pertsonak aldi berean zapaltzaile aritzeko eta zapalduak izateko mekanismo konplexuak agerian uzten laguntzen duen begirada. Emakume lesbienen errealitate eta identitate anitzak ulertzeko tresna baliagarria dugu ikuspegi hau, adina, migrazio-mugimenduak, buru -eta funtzio- aniztasuna eta transexualitatea kontuan izan genituela.

Baliabide sozial guztiei buruzko hausnarketa baten ondoren, esparruka banatzea erabaki genuen: arlo juridikoa, osasun arloa, arlo ekonomikoa, hezkuntza arloa, lan arloa eta arlo soziokulturala. Eta arlo bakoitzean ematen diren

egoera ezberdinen azalpen xehatua egin dugu, ikerketa osoan zehar ageri diren bi gai kontuan izanda: ikusgarritasuna eta segurtasuna.

Lan honetan honako galdera hauei eta beste hainbati emandako erantzunak izango dituzue:

- Ba al dute lesbianek oztoporik baliabide sozialetan aukera-berdintasunean parte hartzeko?

- Lesbiana izatea eta integrazio edota bazterkeria soziala eragiten duten beste hainbat aldagai, batera aritzen al dira? Balizko aldagaiak: zaharra edo gaztea izatea, desgaitasun fisikoa edo psikikoa edukitzea, transexuala edota migratzailea izatea.

- Baliabide sozialak baliatzeko, garrantzitsua al da erreferentzia kolektiboak edukitzea? Zeintzuk dira lesbianen erreferenteak?

Jakin badakigu gizonen homosexualitateaz baino gutxiago ikertu dela lesbianismoaz. Lesbianen agerikotasun sozial eta emakumeen sexualitatea baztertzeko izan dute zerikusirik prozesu horretan. Horixe izan dugu abiapuntu mingotsa. Baina aldi berean, gozo-punturik ere izan dugu, ...



- emakume lesbianen kolektibo osoarekiko jarrera arduratsua sumatu baitugu parte hartzaile guztiengan, ikerlanean parte hartzeko gogoaz gain, modu agerikoan egiteko prest agertu baitira. Esan beharra dugu gogo partekatu honek asebeste gaituela, lesbiana guztien bizi-kalitatea hobetze aldera bai maila profesionalean bai pertsonalean dihardugun lesbiana gisa.

Ondorio orokor gisa, emakume lesbianek EAEko gainontzeko biztanleek beste erabiltzen dituztela mota guztietako giza baliabideak esan dezakegu. Hau da, emakume lesbianek etxebizitza, mediku artapen, hezkuntza eta abarrek beharizanei erantzuten dietela. Dena dela, emakume lesbianek eta gainontzeko biztanleek ez dutela giza baliabideen erabilera berdintasun balditzetan egiten ikusi dugu; izan ere, modu ikusezinean egiten baita erabilera hori. Aukera lesbikoa edota transexualitatea aipatu gabe egiten dela, alegia.

Ikusezintasun hori, batetik, baliabideen (publizitate eta informazio orokorrerako euskarrien eta material didaktikoen) planteamendu eta funtzionamendu heteronormatiboaren ondorio da, ez baliabideek ez baliabideen kudeatzaile diren langileek eurek ez baitute sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia kontuan hartzen. Bestetik, errealitate horren aurrean, emakumeek ikusgarri egiteko duten

beldurrak ere badu eraginik. Hortaz, baliabide sozialetan erabiltzaile lesbianak diskriminatu egiten dira.

Herrien eta hirien arteko aldeak aztertu ditugu: biztanle gutxiako herrietan, jarrera ezberdina erakusten dute herrian bertan jaio ala kanpokoak badira. Herri batean jaio eta hazi izanak lesbiana ageriaraztea eta giza baliabideak halaxe erabiltzea mugatzen du, izan ere, isolamendua edo bazterketa ekar baitezake arau hausteak. Hiriak atzean utzita baserri inguruetara bizitzera joaten diren emakume nagusiak ahaldundutako lesbianak izaten dira, eta ez diote ikusgarritasunari uko egiten, herri txikietan bizi arren.

Oro har, emakume lesbianek ez dituzte hainbat baliabide erabiltzen edo ez dituztelako ezagutzen edo balizko kalte eta eraso beldur direlako. Horretaz gain, askotan egiten diote uko euren eskubideak erabiltzeari; hala nola, ezkontzeagatiko

edo izatezko bikote egiteagatiko egunak zein amatasunagatiko edo bikotekidearen gaixotasunagatiko baimena hartzeari. Lantokian euren sexu orientazioaren berri zabalteko beldur horren ondorioz, bizitza-kalitate eskasagoa pairatzen dute.

Emakumeen arteko indarkeriari, hau da, genero barneko indarkeriari dagokionez, bada azpimarratu nahi dugun kontu kezagarria: emakume lesbianek «intentsitate txikiagokotzat» jotzen dute emakumeen artean gertatzen den indarkeria. Ondorioz, askotan ez dute bide legaletarra jotzen genero barneko indarkeriak eragindako gatazkak konpontzera.

Esan dezakegu gaurko hezkuntza sistemak gure gizartearen egon diren aurrerapen legal eta sozial handiak kontuan hartzen dituela, sexu eta genero aniztasunaren aitorzari dagokionez. Dena dela, hezkuntza sistemak ez du segurtasun sentazio nahikoa transmititzen eta ikastetxeetan ezagutzen ez diren, edo esku hartzen asmatu ez diren bullying lesbofobikoaren kasuak gertatzen dira oraindik ere.

Krisi eta ezegonkortasun garaia dugun honetan, kontrako ingurune bihurtzen da lan eremua eta beldurra handitu egiten da, zaugarriago diren horiengan batez ere. Horrek, lanean emakume lesbianek sexu orientazioa ez agertzea era-

«Eremu soziokulturaleko baliabideak dira emakume lesbianek beste lesbianekin elkartzeko eta harremanak sortzeko gehien erabiltzen dituztenak.»
«Lesbiana migratzaile askok lesbianen elkarteak bilatzen dituzte harrera herrietan; hau da, sexu aukerari lotutako gaiak lehenesten dituzte, kulturalen aldean. Beharbada, jatorrizko herrialdean ase gabeko presazko beharizanari erantzuteko.»

giten du. Izan ere, ez dute uste tratu ona ematen zaienik baliabide ekonomikoak erabiltzean, instituzioen trataera eta jarrera paternalista hautematen baitute baliabide ekonomikoaren kudeaketan.

Osasun arloan ere egoera lazarriak ematen dira. Emakume lesbianek erabiltzen dituzten osasun baliabideen artean, ginekologia da polemika gehien eragiten dituenena. Izan ere, batez ere ugalketari begira zuzentzen zaie eta heterosexualitate ustekizunarekin eta emakumeen arteko sexu harremanen ikusmolde mugatuarekin dago erabat lotua. Eta beraien sexu praktikak ez ezagutzearen ondorioz, tratamendu ginekologikoetatik urruntzen dira. Ez dituzte kontuan hartzen SBGen prebentzio kanpainen, eta ildo beretik, «arriskurik gabeko gizataldetzat» hartzen dira. Bestalde, generoa berresleitzeko prozesuan dauden lesbiana transexualek, gaixo mentalak balira bezala tratatzen dituztela sentitzen dute. Hortaz gain, Bizitza Errealaren Froga egiteko esijentziak sistema bitarraren hegemonian daude oinarrituta. Ondorioz, ez zaizkie askotariko adierazpen eta genero identitateei egokitzen, eta genero rol estereotipatu, heterosexista eta partziala betetzera derrigortzen dituzte.

Eremu soziokulturaleko baliabideak dira emakume lesbianek beste lesbianekin elkartzeko eta harremanak sortzeko gehien erabiltzen dituztenak. Bereziki kirola izan da sozializazio sareak eraikitzeko gehien baloratu dutenetako bat.

Lesbiana migratzaile askok lesbianen elkarteak bilatzen dituzte harrera herrietan; hau da, sexu aukerari lotutako gaiak lehenesten dituzte, kulturalen aldean. Behar-

bada, jatorrizko herrialdean ase gabeko presazko beharri-zanari erantzuteko.

Politika publikoak egiten eta garatzen laguntzea da ikerketa proiektu honen helburu nagusia, bai eta gizarte ikusgarritasun maila handitzea ere, emakume lesbianen bizi kalitatea hobetze aldera. Xede horrekin hainbat hobekuntza proposamen eta gomendio luzatu dizkiegu baliabide sozial ezberdinak kudeatzen dituzten erakunde publiko zein pribatu, instituzional zein asoziatiboei.

Lesbianok legez eta bidez dagokiguna izan dezagun, eta bide horretan lagungarri izango diren esperantzetan, honako gomendioak azpimarratu nahi genituzke:

- Gizarte baliabideak kudeatzen dituzten erakundeei sexu orientazioaren aldagaia sartzeko eskatzen diegu, baliabideen erabiltzaileei datuak eta informazioa eskatzen zaizkion.

- Euskal Administrazio publikoari beharrezko neurriak hartzeko deia egiten diogu, bertako langileek sexu eta genero aniztasunari buruzko trebakuntza egokia izan dezaten, errespetua eta berdintasuna oinarri izango duen trataera eskaintzea helburu.

- Etorrizuneko Berdintasun Planetan sexu eta genero aniztasuna ardatzetako bat izatea proposatzen diegu Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Udalei, eta ondokoak bezalako gaiak landu ditzan eskatzen diegu: emakumeek haien gorputzekiko duten autonomia, lesbianen ikusgarritasuna eta emakume lesbianen ahalduntzea.

- Garrantzitsua da alderdi politikoen agendan politika eta gizarte dimentsioa izango duen gaia izatea lesbianen ikusgarritasuna.

Ahots hauek guztiak maitekiro entzutea proposatzen dizuegu, eta ziur egon hausnarketarako bide eskainiko dizuetela:

Elena Olaortua abokatu lanetan ari da duela hamabost urte eta **ALDARTE-Gay**, Lesbiana eta Transexualen arreta zentroko abokatu ere bada. Bertan LGTB pertsonen eskubideei buruzko lege aholkularitza berezitua eskaintzen du, eta beste hainbat zeregin ere baditu, elkarki laguntzeko taldeen koordinazioa, kasu.

Josune Ortiz formazioz komunikatzaile, berdintasun eta euskara teknikaria da eta bihotzez aktibista lesbiana eta feminista. Sexu eta generoen aniztasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko borroka feministan urte luzeak daramatza. **ALDARTE-Gay**, Lesbiana eta Transexualen arreta zentroko kolaboratzaile ere aspaldi ari da.

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/LESBIANAKLEGEZETABIDEZ.pdf>

